

Ez izatetik izatera. Zerua eta lurra batzeko adinako jauzia egin du Euskal Herriko gay eta lesbianen mugimenduak 20 urte eskasetan. Anonimatoa galdu, kalera atera eta normalizazio bidean jarri dute euren aukera sexuala. Aurrera egin den arren, ez da guztia lortu eta etsi gabe dibardute oraindik ere. EHGAMeko kide batek eta Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboko beste batek euren arazo eta itxaropenen inguruko iritziak azaldu dizkigute.

Nati Rufo

«Pertsona guztiok sexuatuak gara, afektua behar dugu, eta printzipioz gizon zein emakumeekin egon gitezke gustora».

XANTI VICENTE.— Erakundeek gizartea sentsibilizatzeko egin-dako kanpainen hasi daitezke. Instituzio guztiek diskriminazioaren kontrako kanpainak egin beharko lituzkete, gay eta lesbiana kolektiboen elkarlanean, bidegabeke-riak gertatzen diren gunetara

Xanti Vicente

«Anonimatotik ateratzea eta gizartearen balore asko auzitan jartzea izan da gay eta lesbiana mugimenduaren lorpena»

Heteronorma apurtzen



Xanti Vicente, EHGAMeko, eta Nati Rufo, Gipuzkoako Lesbiana Feministen Kolektiboko. ANDER GILLENEA

EGUNKARIA.— Azken egunotan pil-pilean dago gay eta lesbianen eskubide zibilen gaia. Urte hasieran Europako Parlamentuak erabakitako erresoluzioaren ondotik, Espainiako Gizarte Gaietarako Ministerioak egin-dako bikoteen eskubideak arautzeko lege proiektua aurkeztu du, homosexualak kontuan hartzen dituena. Gasteizen lehendabizi eta gero Donostian bikoteentzako erregistroak sortu dira... Nola ikusten du hori gay eta lesbianen mugimenduak?

NATI RUFO.— Lesbianen kolektibotik oinarrian behintzat ongi ikusten dugu. Oinarrian diot, us-te dugulako eskubideak parekatzea eta Europako Parlamentuak landutako erabakia kontuan hartzea aurrerapausoa dela. Aitor-tuko zaizkigun eskubideak baliagarriak dira, batez ere, gay eta lesbianok publikoki errekonozitzen gaituelako. Dena dela, aldi berean lege eta erabaki horiek guztiak ekintza zehatzetan gauzatu beharko lirake, praktikara eraman behar dira. Ondorioak eta onurak orduantxe nabaritu ditugu.

EGUNKARIA.— Zeintzuk dira ekintza konkretu horiek?

bideratuta. Lan mundura, kalera...

RUFO.— Horrezaz gain, lege santzionatzaileak egin beharko lituzkete aukera sexualagatik bazterteak egiten dituzten estamentu, erakunde, enpresa eta gainerakoak zigortzeko.

VICENTE.— Guzti honen azpian arazo bat dago. Eskubide eta aldarrikapen batzuk aitortzeko baldin bada, ondo dago legea aldatzea. Baina horrek ez digu ezertarako balio, aldi berean gizartea aldatzen ez bada. Zertarako zaizkigu baliagarri legeak, inguruak horien erabilera galarratzen badigu? Orduan, gizartearen pentsakera aldatzen ez bada, ez goaz ondo, nahiz eta legeak eremu batzuk ireki.

EGUNKARIA.— Hala ere, gay eta lesbianen mugimendutik beti jarri da auzitan sexualitate instituzionalizatua, ezkontza... Horren kontrako apustua egin da, sexualitate libreago baten aldekoa. Eskubide zibil horien aldarrikapenarekin ez al da hori guztia atzentzen? Disidentzia hori ez al da galtzen ohizko gizartearen mesederako?

RUFO.— Ni ezkontzaren kontra nago, bai heterosexualen kasuan

EDARITEGIA

EZKIAGA, 5

HERNANI

LA BODEGA

TABERNA

Kardaberaz, 14

HERNANI

ATXURBAR

KARDABERAZ, 22

☎ 55 26 46

HERNANI

TXOMIN BARULLO

TABERNA

Marx anaien aholkua:
sexua aurreritzi gabe bizi.

Barrenkale, 40

BILBO

Pasaiako Udala

UDAL ONGIZANTZA SAILA

Pasaiako Udal Ongizantza Sailaren oinarriko arauetako bat, sail honen lana baieztatzen duena hain zuzen ere, diskriminazio-mota guztien bazterteaz litzateke.

Beraz, egun honetan, gure laguntza eta solidaritatea erakutsi nahi diogu mugimendu homosexualaren berdintasunaren aldeko borrokari.

Zestoako Udala

GIZARTE ONGIZATE SAILA

"Bereizkuntzarik gabeko gizarte baten alde"

Tfnoa: 14 70 10

Faxa: 14 80 74

KEY

Music Hall

Espektakulua

Cristo, 13

BILBO